

“EAJ oso funtzionala izan da Espainiako sistema politikoa hemen errotzeko”

Mario Zubiaga

EHUko zientzia politikoetako irakasle

 XABIER LETONA BITERI

Zergatik irabazten ditu hauteskundeak beti EAJk?

Bi alderdi mota daude gizartean: ispilu-alderdiak eta proiektu-alderdiak. Ispilu-alderdiek gaitasun handia dute une zehatz batean gizartearen argazki zehatza egiteko eta, oro har, ados daude dugun gizartearekin. Proiektu-alderdiek gizartean aldaketa sakonak nahi dituzte. EAJ ispilu-alderdia da eta EH Bildu proiektu-alderdia. Proiektuak aldaketa eskatzen du, arriskuak onartzea, errutinak ezbaian jartzea... Eta zer nolako gizartea dugu? Gizarte heldua, adinez zaharkitua, garatua eta kontserbadorea.

EAJri errazagoa zaio islatzea egungo gizarte hori.

Gaia ikuspegi dinamikoago batetik ere azter dezakegu. Hau da, azken 40-45 urteetan zein funtzio bete du EAJk euskal eta espainiar sistema politikoan? Funtzio hori izan da euste-horma izatea, EAJ oso funtzionala izan da Espainiako sistema politikoa hemen errotzeko eta Espainiako sistema politikoak eskaini behar zigun hori kudeatzeko.

Funtzio hori oso eraginkorra izan da ETaren garaian, baina ez dago hain garbi ETaren ondorengoan ere hala izango den, batez ere, ETaren erreferentzia den eremu sozio-politiko-ideologikoak ikuspegi sistemikoa hartzen duen neu-

rrian. Gakoa da EH Bildu, zentrorantz daraman prozesu horretan, ea zein punturaino bilaka daitekeen aliatu fidagarria Espainiako sistema politikoarentzat. Hori gertatzen bada, orduan EAJren euste-horma funtzio hori ezbaian gera daiteke eta, akordioak eta aliantzak anitzagoak izan daitezke.

Adibidez, EH Bildu eta PSEren artean?

Bai. EAJk hauteskundeak “erlatiboki” irabazten ditu, eta EAEko alderdi-sistema anitza ikusita, nekez lor dezake bere kabuz gehiago osoa. Baina Espainiako makulu sistemikoa hor du eskura, eta beraz, gobernu alternatiba osatzeko, tandemak gainditu behar da. Dena den, EAJ-PSE koalizio sistemiko hori kanpainaren erdigunean kokatu izanak, 40 urteotako erregimen autonomikoa jarri du nolabaiteko

“erreferendum” batean. Krisi pandemiakoak lagunduta, ziurrenik garaile aterako da tandemak oraingoan ere, baina hautuaren gordintasunak erregimen mota horren agortzea agerian utzi duela esango nuke.

Gerta litezke aliantza berri horiek?
EH Bilduren gaur egungo Espainiare-

kiko jarrera proposamen konfederala da, hau da, erabaki eskubidea onartuko lukeen akordio bat lortzea. Horrekin PSOEren eta Podemosen sinesgarritasuna irabazten badu, agian hemen gauzak alda daitezke, baina ez dut uste hori epe laburrean gauzatuko denik.

EH Bilduren, PSEren eta Podemosen alternatibaz hitz egiten da batzuetan.

Hori oso zaila da, batez ere PSEk eta hemengo Podemosek ez dutelako estatutu estrategiaren barruan erabakiak hartzeko askatasunik. Erabaki horiek Madrildik hartzen dituzte. Gainera, hor badago beste osagai bat: EAJ-EH Bilduren borroka. Hau da, Espainiaren harreman bilateral horretan, nork lortuko du gehiago Euskal Herriarentzat? Alde horretatik PSOerentzat ituna beti izango da errazagoa EAJrekin, EH Bilduk listoa gorago jarriko diolako, autogobernua eta ezkeraren ikuspegitik.

Eta PSOeri begira baino, EAJ eta EH Bildu elkarri begira jarriko balira?

EAJren bi arimak beti daude hor, eta beraz, Ibarretxeren aldeko arima indartuko balitz... Ñabardura gutxi batzuekin, gaur egun EH Bilduren estrategia “ibarrerista” da, eta alde horretatik ez legoke arazorik, baina ez dut uste egungo EAJn horretarako interesik dagoenik. Egungo posizioan arrakasta ziurtatuta dute eta politikan oso zaila da egoera horretan egonda aldaketa handiak egitea, ez behintzat zerbait oso larria gertatzen ez bada. ●

Dena den, EAJ-PSE koalizio sistemiko hori kanpainaren erdigunean kokatu izanak, 40 urteotako erregimen autonomikoa jarri du nolabaiteko 'erreferendum' batean”